



GOIERRITARRA

HAMABOSTEKARIA

54. zenbakia

94ko irailak 23

Errreportaia:
Alkartasuna
Lizeoa

Txondarra sutan Zerainen



Autowag, s.a.



Errepide Nagusia, N-1. 419 Kma.
Tfnoak: 88 82 66 - 88 82 54

BEASAIN



GOITGI OKINDEGIA

Ogigintzan
onenak!!

- ♦ Egurrezko labean egindako ogi gozoa
- ♦ Opil finak
- ♦ Eguneroko ogia
- ♦ Ogi bereziak
- ♦ Ogi artisauak

Etkezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

Barandiaran Taldea, 2
ZALDIBIA ☎ 880737



ANZIZAR, S. A.

Autoelektrizitatea
eta mekanika

Volkswagen
taldea

Beasain-Zumarraga, 46 Kma.
☎ 88 17 00 - 88 17 04 BEASAIN

ZUHAIZKI

Zurgindegi Mekanikoa



-LEIHOAK, ATEAK
ETA ABAR

-ESKAILERAK
NEURRITARA



Beko kale, z/g.
Tel. 88 71 26
Faxa: 16 10 77
ITSASONDO
(Gipuzkoa)

ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA

Eskatu aurrekontuak konpromezurik gabe

IBABE INDUSTRIALDEA ☎ 888101 LAZKAO

REHAU

AZKARATE

POL. INDUSTRIAL IBABE
TFNO.. 88 81 01 LAZKAO

UNTXUNDEI

Garajea



OSINALDE Karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

EZ EGON BEGIRA !

Z·M

Gipuzkoako Foru Aldundia
MUSEO · ZUMALAKARREGI · MUSEOA
Ormaiztegi · Gipuzkoa
Diputación Foral de Gipuzkoa

Casa · Iriarte Erdikoa · Etxea
20.016 Ormaiztegi · Gipuzkoa
Tlf.: 943 · 88 99 00
Fax: 943 · 88 01 38

ZATOZ ETA PARTE HAR EZAZU

- ARTXIBO ETA LIBURUTEGIA: XIX mende-ko agiri, irudi, aldizkari, liburuak...
- ARGITALPENAK: Aldizkari, katalogo, bi-deoak...
- IKERKETA BEKAK, ERAKUSKETAK, eta abar.
- MUSEOKO EKINTZAK:
- Ikonografia lantegia: musika, liburu eta komikiak, puzzleak eta abar.
- Goierriko neska-mutilentzako ariketak:
- * Astelehenetan: 12-14 urte.
- * Asteazkenetan: 9-11 urte.
- * Ostiraletan: 6-8 urte.
- Etorri museora eta ikasi ezazu gure jokoan bidez!
- BISITA ORDUTEGIA:
- Astelehenetik ostiralera: 10etatik 13etara eta 15etatik 19etara.
- Larunbatetan: 10etatik 14etara eta 15'30etatik 18'30etara.
- SARRERA DOHAINIK

KONTSULTORIO MEDIKU-KIRURGIKOA

Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak

Ordua eskatzeko Tfnoak: 885750 - 885754
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. BEASAIN



Tfnoa: 885500 ORDIZIA

GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA
Argitaratzailea:
 "Goierritarak" Kultur
 Elkartea.

Dorre-etxea, 1.
(Correos-gaitean).

Tfnoa: 889612.

Faxa: 161463.

124 posta kutxa,

Ordizia.

Zuzendaria:

Loinaz Agirre.

Erredakzioa:

Jon Arano, Mikel Albisu.

Publizitatea:

Josune Agirre, Argider Mujika.

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon
 Arano, Mikel Albisu, Jon Ima-
 nol Iturrioz, Patxi Zubizarreta,
 Ane Martin, Loinaz Agirre, Ne-
 kane Altuna eta Estitxu Imaz.

**Zenbaki honetako kronista
 eta kolaboratzaileak:**

Joxe Begiristain, Aitor Calvillo,
 Rufino Iraola, Aloña Galarraga,
 Gabino Murua, Jon Aldanondo
 Joseba Telleria, Iñaki Murua,
 Joxemari Iturralde, Mari Joxe
 Madariaga eta Izaskun Salazar.

Azaleko argazkia: M. Albisu
**Fotokonposaketa eta maketa-
 zioa:** GOIERRITARRA.

Inprimaketa: ANTZA, S.A.
 (Industrialdea, 1-2. Lasarte-
 Oria)

Tirada: 3.700 ale. 3.300 harpi-
 dedun.

ISSN: 1132-0907

Lege Gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRA ez du
 bere gain hartzen derrigorrez,
 aldizkarian adierazitako esa-
 nen eta iritzien erantzunkin-
 zunik.

▼ Hamabostaldian nabarmen ▼



88 urte eta segarako a ze sasoia!

Patxi Irastorza zaldibita-
 rra, "Antxieta-Tellei" ba-
 serrian jaio 1906an eta ber-
 tan bizi da. 88 urte dituen
 gizon hau baserriko lanak
 egiteko din da: malkarreta-
 ko belarrak moztu segaz,
 baratza eta soroetako labo-
 reak, ganadu-hegazti e.a.en
 gobernua iaio-asko.

Soldaduska egin eta gero
 jaiotetxera ezkondu zen
 Eleuteria Sukiarekin, bai
 eta 7 seme-alaba hazi ere.
 Patxi dioenez, urte-sasoi-
 rik okerrenak 30 urte inguru
 zituenean, gerra garaian,
 pasa zituen, gerra zibilera
 joan ez arren. Garai hartan
 juxtu-juxtu ibiltzen omen
 ziren eguneroko ogia ater-
 ratzeko. Gosea ezagutu zu-
 ten.

49 urte ezkerotik erreti-
 ratu bitartean Beasaingo

CAF-en Zaldibiko argin-
 dar-zentralean egin zuen
 lan, baserriarekin konpaji-
 natuz.

Bizirik dirauten 7 seme-
 alabetatik bat aita-ama eta
 bi umerekin bizi dira An-
 txietan. Orain dela 6 urte
 ebakuntza bat egin bazioten
 ere, osasun egoera ezin ho-
 bean aurkitzen da Patxi.
 Pentsa.

Kanpetxano asko esaten
 digunez, "osasunari euste-
 ko sekretua lan asko egin
 eta pattar gutxi hartzea
 da". Nahiera guztiak bete
 ez arren, zaldibitar hauek
 gai dira bertako laboreak
 egin eta hiru behi goberna-
 tzeko.

 **Koldo Zubeldia eta
 J.M.A.**

Besteek esana

"Kizkitatik itsasoa ikus-
 ten zela esaten ziguten txiki-
 tan, eta ilusioz gainezka
 igotzen ginen begiak busti-
 tzeraz. Betartea zimurtu
 ikusmen osoa konzentratze-
 ko eta... bazen beti lainajeren
 bat itsasoa estaltzen ziguna.
 Egon ere, lehorreko Itsason
 zegoen Kizkitza, kostatik
 baino Aizkorritik hurbilago.
 Gaztetxotan, Txindokitik
 itsasoa ikusi zitekeela zioten.
 Azken aldapa gogaikarria
 igo eta... bista baino imajina-
 zioa gehiago behar zen itsa-
 soa somatzeko (...)."

Elixabete Garmendiak
"Egunkaria"n, irailak 8an

"Ez da gaztatik bakarrik
 bizi Ordizia. (...)Baina kan-
 biorik nagusia gaztak be-
 reganatu eta hartu duen to-
 kia da, ia-ia Eguna horre-
 kintxe identifikatzeraino.
 (...)Ondorioz, beste hain-
 beste gauza interesgarri,
 inolako sonarik gabe, isil-
 pean bezala igarotzen dira:
 ganadu sariez, irabazleen
 izenak aipatzeaz gain, ez da
 inolako iruzkinik egiten
 inon; oilo eta fruta sariez,
 zer esanik ez. (...)Udalarena
 berarena baino areago
 prentsarena da, agian, eran-
 tzunkizuna, baina Udalak ez
 al lieke esan beharko zer bait
 komunikabideei?"

**Rufino Iraolak "D.V."n,
 94-IX-14ean.**

*Eusko Jaurlaritza-
 ko Kultura Sailak,
 Gipuzkoako Foru
 Aldundiak eta*

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA dohain
 jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea.....

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

ETBrako auspoa ala haizea?

Txoritxoak arnasa estu eta larri duena bistan da. Entzun ere entzuten al zaio bada? Zenbait artikulu irakurri ostean, berorietan auspolana nabarmendu dut nik gehien; badu premiarik!

Ikusiak ikusi eta entzunak entzun niri zera bururatu, aizue: ETB = Euskal Telebista = Euskaraz diharduena. A ze burutazioa, ezta? Bo! Bada, hain ximple den hori aurrera ez eramatekotan, akabu!, gureak egin du. Zertarako munduko auspo guztiak haizea falta bada? *espainolerak* ETBn diharduen bitartean *itomena* jaki. Hori edonork daki. Hain al da zaila euskaraz diharduen telebista, zeinetan botoia-edo sakatu eta azpituluak frantseseraz edota espainoleraz --aukera-- agertuko diren? Zertarako dugu bada teknologia?

Bizirik irauteko espazioa ezinbestekoa da, hemen eta nonahi. Edo-

ta bizi-itxuratan ari gara? Nik ETB nahi dut, hots, izena eta izana. Eta ez ETB esan eta ETV eman. Eta zuek? Aldarrika dezagun, osterantzean...

Pello Sarriegi (Barrika-Bizkaia)

Eskerrik asko Zaldibia

Gutun hau sinatzen dugunok Zaldibian AEKren hiru asteko barne-tegi bat zuzendu dugu abuztuan. Hiru astetan gauza anitz egin eta jende ugari ezagutzeko parada ezin hobeia izan dugu. Zinez polita izan den esperientzia honetan berebiziko garrantzia izan dute zaldibitarrek.

AEKko kide garen heinean bada-kigu inor euskalduntzeko euskaraz bizitzea dela funtsezkoena. Eguneroko bizitzan hizkuntza sentitzea, barneratzea, bizitzea. Honetan argi dago helduen euskalduntzean bereziki jardungo dutenen lana ezinbes-

tekoa dela, aldi berean, ordea, argi dugu prozesu luze honetan herriak berak izan behar duela irakasle. Zaldibiako herriak hasieratik egin zigun harrerak eta ondoren agertu duen jarrerak argi utzi digu arestian esandakoa barneraturik duela eta gure herria eta hizkuntzarekin guztiok dugun konpromezuari ez diola muzin egiten. Behar izan ditugunean hortxe izan ditugu laguntzeko prest, gauza baterako zein besterako.

Hori horrela, gutun honen bitartez Euskal Herriaren berreuskalduntzearen alde egiten duen lanagatik zoriondu nahi genuke Zaldibiako herria eta bereziki bertako gaztedia. Hauen jarduna guztiontzako eredu gertatzea nahi genuke Euskal Herria euskalduntzeko bidean guztiok baitugu gure lekua.

Imanol Esnaola (Lezo)

ITZUL TALDEA

Era guztietako itzulpenak egiten ditugu
(gazt./eus. eus./gazt.)
Goierriko denda, lantegi,
e.a.-en zerbitzura.
☎ 160803 Faxe: 88 07 22

-EZKURRA -ATEAK

Ateen ezartze eta salmenta
Tarima eta parketak



Tfnoa.: 16 07 50 Domingo Unanue, 2
Faxe: 88 09 13 ORDIZIA



LANCIA
ETXE - AZPI

☎ 88 10 61 - 88 29 46
ORMAIZTEGI



UNED-BERGARA IKASTETXE ELKARTUA
1994/95 IKASTURTERAKO MATRIKULA EPEAK

LEHENENGO EPEA: irailaren 15etik urriaren 17ra
BIGARREN EPEA: urriaren 1etik 29ra

ARGIBIDEAK:

UNED-BERGARA Ikastetxe Elkartuko Idazkaritza
San Martin Agirre Enparantza, z/g (69 aptdoa.)
20570 BERGARA
Tfnoa.: 761342 - 761343

BULEGO ORDUAK: asteartetik ostiralera,
10,30etatik 12,30etara eta 17,30etatik 20,00etara.
Larunbata goizez 9etatik 12etara (urritik).

inlingua
hizkuntzak

INGELES, ALEMANIERA,
FRANTSESA ETA ARABIERA
Matrikula zabalik
Jatorrizko irakasleak
Maila guztiak

J.M. Iturrioz, 11-1. ☎ 16 05 72
BEASAIN
Elkano k., 8-1. ☎ 88 11 37
ORDIZIA
Iparragirre, 8-1. ☎ 72 22 23
ZUMARRAGA

Intereseko

Telefonoak

Zumarragako Eritetxea:.....	721614
Donostiako Erresidentzia: ..	453800
Gurutze Gorria:	272222
DYA:	464622
SOS Deiak:	088
Eguraldi informazioa:.....	094
Errepideen egoera:.....	288888
Ertzantza (Beasain):	887350
Suhiltzaileak (Ordizia):	881362
Renfe (Beasain):	880853
Sarasola Garraioak:	880710
Pesa Garraioak:	880668
Estellesa (Donostia):	470115
Itxaropenaren tfnoa:	458005
HIES-SIDAr buruzko Inf.: ..	282666
Alkoholiko Anonimoak:.....	276618
Goierrri Lanbide Eskola:	880062
GOIERRITARRA	889612

Errezeta



ARDI XEXIÑEA AZAREKIN

Osagaiak: Ardikia, gatza, aza bat eta ura.

Lehenengo ardikia xexiñeatu egin behar da, hau da: 8-10 egunetan lurrezko ontzi batean gatz lodiarekin estalita eduki. Egunak pasatzen direnean jateko

prestatu aurretik gezatu egin behar da, horretarako gau bat ur hotzetan edukitzen da.

Eltze batean urarekin xexiñea sutan jarri xamurtu arte (2 ordu inguru). Ondoren aza txikitua gehitu eta egosi arte eduki. Ia zerbitzatu eta jatea besterik ez da gelditzen.

Ixi Mujikak emana Gerriko taberna Lazkao



Haritz Zeberio Gaia: Hasi berri da liga Doinua: Betroiarena

Bota bertsoa

Futbol munduak badu
horrenbeste dohai
Ligan murgiltzen dira
haurrak ere bai
afalduz partidua
ikusi nahi lasai
sofan erdi etzanda
txorixo ta urdai
bi ekipo etsai
elkar-jateko gai
emakumeek jai
noiz bukatuko zai
gizonek beste ezer
ez dutenez nahi (bir)

Protesta, buila eta
iseka ugari
"nik futbolik ez det nahi
aldatu hori!"
"Ixo! entzun nahi diot
komentaristari"
"ta nik kulebroieko
Ana gaixoari"
biak guri-guri
sua da nabari
aitatxok amari:
"utzi pakean neri!"
Liga hasi da eta
zenbat komeri (bir)



OTEGI-UNANUE

ERAIKUNTZA ORO EGITEKO PREST
Etxebizitzak berriak salgai Ordi-
ziako Elkano kalean
Bekokale 17-1.
ITSASONDO ☎ 16 02 22

KUKO Jatetxea

—Haragietan aukera handia
—Okeletan mundu oso bat

Igandeetan jai, erreserbak salbu
(bataio, jaunartze, e. a.)


Berjaldegi Plaza, z/g ☎ 88 28 93
ORMAIZTEGI

GOIERRIKO ZURAK, S.L

Inportazioko egur biltegia
Ohol, aglomeratuak, e.a.

Iribarren, z/g
☎ 88 80 23

LAZKAO



EDUZKI
Nafarroa Etorbidea. 9
Tfnoa: 88 94 82
20200 BEASAIN

Lana

Ordiziar gazte langile baten edozein lan klase egingo luke: baserrian, eraikuntzan, soldaduran... 886732 telefonora dei, Alberto.

Mekanografia lanak egiten dira ordenadorez. 882843 telefonoa, Eli.

Salerosketak

Era guztietako itzulpenak egiten ditugu "Otsaila"n. Hizkuntzak: Euskara, frantsesa, ingelesa, gaztelera. Urdaneta, 15. Tfnoa.: 885109.

GOIERRITARRAren kamixetak salgai gure egoitzan (Ordiziako Dorre-etxean). Txuri-beltzak, XL, L eta M tailak aukeran, 1.000 pztan. Aldizkariaren ale atzeratuak ere oparitzen ditugu.

Besterik

Bixita gidatuak GOIERRITARRAra. Aldizkaria nola egiten den esplikatuko genieke ikasle taldeei. Interesatuok dei 889612ra.

Etxebizitzak

Pertsona bat behar dut alokatutako pisu bat konpartitzeko. 889612ra dei, Jon-etaz galde.

KILOMETROAK 94,

LEGAZPIra joateko tren zerbitzu berezia izango da **urriaren 2an**: ordu laurdenero joatera-koan eta, 20 minuturo itzulerakoan, arratsaldeko 3.00etatik aurrera. Azken tren, 11.00etan aterako da Legazpi bertatik.

BEASAIN

Irailak 23: "Ekialdetik Euskal Herrira", Javier Juanesen diapositiba emanaldia Aizkorri M.E.an 20.00etan. **25a bitarte**: Jubilatutako Etxean eginitako eskularen erakusketa Kultur Etxean. **24**: "Ai Geala" Euskara-Taldeko Batzar Nagusia goizeko hamaiketan, Beasaingo Udaletxeko batzar-aretoan. **24-25etan**: Eskualdeko Xake Txapelketa Udaletxeko Batzar-aretoan (Kultur-etxetik sartuz), Alfíl xakelarien eskutik. **Urriak 7ra bitarte**: Marijose Arkaut-en erakusketa Aterpen. **27**: "Haur heziketa 0-3 urte bitartean" hitzaldia Izaskun Madariaga pedagogaren eskutik, Udal Batzarre-aretoan 18.30etan, Seaska haurtzaindegia antolatutik. **30etik urriaren 9ra bitarte**: Iñaki Azanzaren argazki erakusketa Kultur etxean.



Alegiko Txistulariak. 12etan Meza Nagusia. Arratsaldeko 6etan Herri Kirolak, Aramako "katuak", Altzagako "txakur-aren" aurka. Trontza, aizkora, Txingura, txinga, koskolak, sokatiran arituko dira. Ondoren trikitixa.

ALTZAGA

San Migel Jaen egitaraua **Irailak 29**, osteguna, S. Migel eguna.

12etan, Meza Nagusia. Eguerdiko 2etan, Herri Bazkaria, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin eta Epelde anaiak trikitilariekin. 19etan Toka txapelketa. Ondoren, Epelde anaiak.

Irailak 30, ostirala.

Gaueko 9etan, afaria Artea Elkartean, txiste kontalari eta trikitilariak alaiturik (izen ematea Artea Elkarteko taulan).

Urriak 1, larunbata.

Arratsaldeko 6etan, Haur jolasak. Gaueko 11etan, Imuntzo eta Belokiren eskutik erromeria. Goizaldera, langostino jatea.

Urriak 2, igandea.

Goizeko 10etan hasita,

Beasain/Ordiziako Goardiazko botikak

Irailak 23: Atorrasagasti; **24-25**: Jauregi; **26**: Azpilikueta; **27**: Jauregi; **28**: Lurnaga; **29**: Cuesta; **30**: Arriola. **Urriak 1- 2-3**: Urbizu; **4**: Atorrasagasti; **5**: Azpilikueta; **6**: Jauregi.

Ordiziako Herri Antzokia:

Ostirala 23, 10,15 "Agarralo como puedes 33 1/3". **Larunbata 24**, 7,30- 10,15 "Sombras en el silencio". **Igandea 25**, 4,45- 7,30- 10,15 "Agarralo como puedes 33 1/3". **Astelehena 26**, 7,30 "Agarralo como puedes 33 1/3".

Ordiziako Mendizaleak: **irailak 25**: Ernio; **urriak 2**: Kilometroak-Legazpi-Otaño.



MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19. Tel. 88 11 94
ORDIZIA



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa María, 8 - Tel. 881211 - ORDIZIA



- ✓ Eguneroko menua, 750 pzta.
- ✓ Karta, batz bestea, 2.000 pzta.

88 10 19 ATAUN S. Martin



ARGAZKI DENDA

Argazkien errebelatua ordu betean
Tfnoa eta Faxe: 88 04 78
Nafarroa Etorbidea, 1.

BEASAIN



Arg.: Dioni

Piper txorizero gorriak agertu ziren asteazkeneko azokan. 800-1.100 pta bitartean saldu ziren. Kanpoko piperrak piskana-piskanaka ugarituz doaz: bola, piko eta pikiloak, 100 eta 150 pezeta artean saldu ziren.

Bertako tomate, leka eta letxugak dextente garestitu ziren. Uda sasoiari kanpoko ekartzen ez badute ere, asteazkenean kanpoko tomate eta lekak ikus ahal izan ziren, bertakoak gutxituz baitoaz. Dena den, azaburuak gero eta handiagoak ikusten dira, 80-150 pezetan.

Babarrun berriak ere agertu ziren. Beltza 700-1.200ean, txuria eta gorria 800ean.

Bertako gaztainak behera egin zuten prezioz. 300-350 pezetan. Kanpoko gaztainak oraindik ere ez dira azaldu.

Kanpoko produktuei dagokienean, mandarinak

eta sagarrak jaitsi egin ziren. Mandarinak 175-200 eta sagarrak 100-175 bitartean saldu ziren. Gainontzean, platanok gora eta paraguaiok, sandia eta mahats moskatelarik ez zen agertu.

Arrainetan, prezioak ez dira gehiegi aldatu. Hori bai, atun eta legatzak igoera nabarmena izan zuen. Hona hemen prezioak: Atuna 1.320, legatza 2.600, antxoia 740, bakailaua 1.300, txixarroa 780, sardina 520 pezetan.

Perretxikuak ez ziren gehiegi azaldu. Onddoak, nahiko sakabantuak izan ziren. Guztira 14 bat kilo inguru. 3.500-4.000 pezetatik saldu ziren. Gibelurdinak 3.000an, ziza-horiak 2.000-2.500ean.

Azkenik, **14 arkume** buru (580-625 pezetan kilo) eta 6 zaku untxi (250ean) azaldu ziren.

Ana Irastorza

□BEASAINGO "AI GEALA"REN IKASTAROA

Bertso-ikastaroa Mikel Mendizabalekin. 16 urtetik aurrerakoentzat, bertsoan hasi edo trebatu nahi dutentzat. Talde txikia (dozena bat lagun) osatzea espero da; 14 orduko ikastaroa. **Kantu-ikastaroa** Mikel Markezekin. Betiko euskal kantak lagunartean ikasi eta kantatzeko, ez da beharrezkoa musika edo solfeorik jakitea; 20 orduko ikastaroa. Bi kasutan bi orduko saioak, astean behin, iluntzean, urrian hasita. Izen ematea Beasaingo Udal Euskaltegian (kultur etxean). Tfnoa: 889094. Epea: irailaren 30 arte. Prezioa: 3.000 pzta (materiala barne). Antolatzaile: "Ai Geala" Euskara Taldea.

□ESKOLA HELDUENTZAT ZEGAMAN

Urritik aurrera EPA deritzon gela bat jarriko da martxan bertan. Eskol graduatua atera edo, besterik gabe, zure kultura eta ezagutzak zabaldu ditzazkezu. Zegamakoa, Beasaingo zentruaren menpe egongo da, bertatik etorriko dela irakaslea. Klaseak erabat dohainik izango dira. Matrikula eta informazio gehiago, Udal Euskara eta Kultura bulegoan izango duzu. Anima zaituz!

□GOIERRI ESKOLAREN IKASTAROK LANGABETUENTZAT

Goierri Lanbide Eskolak 16tik 20 urte bitarteko gazte langabetuentzako 4 ikastaro antolatu ditu: txapa-pintura, sukaldaritza-erreposteria, automozioa eta basozaintza. Ikastaroak 30 ordu/asteko izango dira, zeinak tailerreko 20 eta 10 osagarrietan banatuko diren. Klaseak 6 ordutan emango dira, goizeko 8,30etatik 14,30etara. Lanbide orientazioa, heziketa teoriko-praktikoa eta praktiketako lana dute helburu antolatzaileek. Berri gehiagotarako dei 889200 edo Eskolara bertaratu izen ematera irailak 23a baino lehen.

□KIMETZ EMAKUME ELKARTEAREN IKASTAROK

Ordiziako Emakumeen Kultur Elkarteak, Kimeztzek, hiru ikastaro antolatu ditu urria, azaroa eta abendurako. **Gizarte mailako trebetasunak eta nortasuna finkatzea** ikastaroa: 8 aste, bi orduko saioak astean behin. **Giza harremanak eta sexualitatea**: 10 aste, bi orduko saioak astean behin. **Eta Literatur tertuliak**: bi orduko saioa hilean behin. Izena eman nahi duenak dei beza 88 33 79 edo 88 72 57 telefonoetara. Argibide gehiago: irailaren 22an, arratsaldeko 3etan Barrena Kultur Etxean egingo den bileran.

GIROA TABERNA

Pintxo ederrak jateko aukera

Areso, 6
☎ 88 77 40

LAZKAO

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8
Tel: 88 04 53

BEASAIN



Iñaki Murua
(Bertsolari eta irakaslea)

“Euskararen erabilpenean, jakintsuenak zu bezalakoak dira”

Gabiria bezalako herrietan ere euskara xeble xamarra entzuten hasi gara, izan ere, orain arte herri txikietan koto modura gordetzen ziren euskararen guneak, irrati, telebista eta eskola bitarteko, ez dira kutsaduraren aurkako babes neurrien menpe gelditzen. euskara standard bat hedatzen ari da eta hori berez ona den arren, akats standarrak ari zaizkigu ahoz aho zabaltzen eta betiko gure maniarri jarraituz, hau da: kanpokoia beti etxekoa baino hobea, geure hizketa preskoari modan dauden eraskin parregarriak lotzen ari gatzazkio.

Iritzi berekoa baldin bazara, zer egin dezakegun pentsatzen hasi beharko dugu eta ez baduzu berdin pentsatzen, jakingo nuke gustora zergatik. Bai, badakit Gabirin ia esateko erdaldunik ez dagoela eta daudenak agian euskaltzaleak direla. “Beharrago genikek Euskalerri osoan egoera berdina bagendu”. Konforme, baina gurean ere hobetu ordez atzeraka bagoaz, pentsa hirietan zer izango den!

Euskaraz alfabetatu gabea zaren horrek askotan esaldi berriak edo hitz ezezagunak entzuten dituzu, eta pentsatzen duzu zuk dakizkizunak baino hobeto egongo direla. Arrazoi izango duzu batzutan, baina, zuk ezagutzen, erabiltzen eta aurrekoengandik hala jaso dituzun egiturak guztiz aldaturik eta erdal hitzez jositik, ulerkaitez entzuten dituzue.

Betiko euskaldunak Euskaldunak betiko

zunean, zergatik isiltzen zara? Zergatik ez duzu jakiera edo ohituren aldaketan aurrean hartzen duzun jarrera hartzen?

Euskararen erabilpenean jakintsuenak, zu bezalakoak dira eta ez duzu inolako konplejurik izan behar ustezko jakintsuen aurrean, ez behintzat Gabiriko euskararekin.

Nere usteak hala diren arren, harriturik nago gure umeek, askotan ere, esaten dituzten hitz eta esamoldeekin; begira bestela: “*juten gea jolastea?*”, “*jolasten deu/ gea?*”, “*Si atzo berdine bazkaldu gendun eta*”. Batetik honelakoak eta bestetik betiko “*Eñauti plazan ikusi diot jolasen*”.

Seguro nago, nere edade beretsukoei eta hortik gorakoei gutxiago, ez diezula entzungo honelako esaldirik. Osabari “tio” izebari “tia”, “abuelo eta abuela” ere norbaiti bai, baino hauek lehengo horien aldean akats arinak dira, horiek egitura akatsak dira eta oso nekez zuzentzen direnak, besteak erreparo apur bat jartzearekin konpontzen dira. Ipuinen hasierak ere “bazen behin edo ba omen zihohan behin” izatetik “juten zan


behin otsoa basotik eta...” izatera iritsi zaizkigu.

Garbi dago, hau zuzendu behar diegula gazteagoei, inongo lotsa eta hanka sartzeko beldurrik gabe, ongi egiten ari garenaren eta beraz onartu edo eskertu behar diguten uste osoz. Eta horretarako ez dago filologo izan beharrik ez alfabetatzera joan beharrik (ez dut esan nahi joan behar ez denik, joaten bazara hobe) geurea zaintzen arreta jartzea nahikoa dugu. Lehenengo aldiz lanean hasten den bati erakusten diogun bezalaxe, hizketan ere zuzenketak eginez ikasiko dute eta asko eskertuko digute nola ikasleek ala irakasleek, bihar edo etzi.

Kontuz! Zuzenketak egiteko ere moduak daude, sarritan parre egin diogu hanka sartu duen euskaldun berriari eta gehiago euskaraz egiteko gogo gabe utzi, lotsa gutxiarekin hainbeste urtetan hemen bizi arren euskaraz ikasi ez duenarekin erderaz ari garen bitartean.

Gabiria bezalako herrietan, zuzenketa onartuaren ohitura sortzea, ez da hain zaila, izerdi askorik atera gabe egin dezakegu. Batzuk egiten dute behintzat! Garrantzitsuena da, ohitura hau hartzen duenak gauza bera egingo duela ingurukoekin eta sortzen den kateak ziurtatuko du euskararen osasun sendoa.

Erreza dirudi ezta?



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxegintzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, iturri eta gehigarriak
- Hidromasaia bainerak eta saunak
- Subaju eta ikatz eta egurrezko sukaldeak



Barandiaran
ZERAMIKAK

Senpere, 7 ☎ 88 79 72
BEASAIN

Erakargarritasuna

Beste zerbaitetaz idaztea pentsatzen nuen, baina irratian entzundakoak iritzia aldatzera bultzatu nau. Estatu Batuek eta Clinton Presidenteak Haiti erasotzera doazela-eta, inbasio hori aurretik iragarrita zegoenez, hamarretik zazpi estatubatuar omen zeuden inbasio horren kontra atzo bertan. Gaur ordea, bart telebistan Clintonen hitzaldia ikusi ondoren, hamarretik sei omen daude inbasioaren... alde! Hori bai dela benetan komentatzeko abilitadea! Zera pentsatu dut orduan, Clinton oso trebea dela edo estatubatuarak nahiko inozo eta ergelak, edota biak batera (atera orduan kontuak!).

Gure artean eta GOIERRITARRA aldizkarian gaudenez gero zera esango nuke gaur bertako istoriotxo hori honaino ekarriz: aldizkari honi horrelako erakargarritasuna desio diodala. Eta konbentzitzeko antzeko gaitasuna eduki dezala ez noski inor erasotzeko, edonor kultura eta jakintasunaren mundura hurbiltzeko baidik.

 Joxemari Iturralde

Kilometroak eta Nafarroa Oinezera joango al zara?



Egoitz Berasategi
segurarra, 19 urte
ikaslea

Urtero joaten naiz eta aurtun ere bietara joango naiz. Bezperatik joaten gara kanpinean, juerga egitera. Oso ondo pasatzen dugu.



Isabel Arrondo
segurarra, 28 urte
etxeakoandrea

Aurtun ez naiz joango, ume txikia dudalako. Besteetan bietara joan izan naiz, egun-pasa polita egiten dugu lagunartean.



Nekane Ugalde
segurarra, 26 urte
albergeko langilea

Nafarroa Oinezera ez nintzen joan lana neukalako, baina Legazpira joango naiz. Oso giro ona egoten da eta asko gustatzen zait.

Bitxikeriak

1822 urteko Gipuzkoan 20 herrik ez zuten oraindik eskolarik. Adibidez, Zegama, Idiazabal, Zerain, Mutiloa eta Olaberriak.

Bestalde, 1828-1834 eta 1856-62 tartean Jose Antonio Azpiazu segurarrak jardun zuen maisutzan Hondarribiko mutilen eskola hiritarrean. Eskola hartako lehen maistra dokumentatuaren aztarnak 1829.ra iristen dira, eta hain zuzen Inasi Iztueta (Juan Inazio Iztueta zaldibiar ospetsuaren alaba eta Jose A. Azpiazu segurarraren emaztea) izan zen nesken lehen irakasle hori. 1858tik 1890 bitartean Klaudio Otaegi maisu eta idazle zegamarraren esku egon zen Hondarribiko eskola.

LEIAR

KRISTALDEGIA



ERAKUSKETA: Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 888824
BILTEGIA: Salbatore Industrialdea. ☎ 886070
BEASAIN

OSASUN


BELAR ETA DIETETIKA DENDA
NATUROPATA

Eska ezazu eguna eta ordua

Goierrri, 10 • Tfnoa: 88 61 14 • ORDIZIA

MUNDUATE

Erlojutegia



TISSOT

Swiss Quality Time

BANATZAILE OFIZIALA

*100 urte baino gehiago
Goierriren zerbitzuan*

Nagusia, 1
Tfnoa: 88 12 72

ORDIZIA

Lirain

Lurrindegia eta Opari Gaiak

San Inazio, 14 ☎ 88 93 90 BEASAIN

IBAI - ONDO



ZURGINTZA
HALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK

Tailer eta erakusketa:

Antzizar Auzoa, z/g.
Tfnoa: 880543 BEASAIN

Ba al dakizu...?



BI GOIERRITAR ATXI-

LOTU zituzten Iparraldeko Muge-
rren Frantziako poliziek aurreko as-
tean: Kepa Mujika Garmendia ordi-
ziarra ("Pakito"ren anaia) eta Josu
Lopez Castaños beasaindarra. Hori
dela eta mobilazazio ugari izan dira
Goierriin. Bestalde, euskal presoak
gose greban daude eta, horiekiko el-
kartasunean, oraintxe bertan hainbat
goierritar dago egoera berean baila-
rako zenbait lekutan: Ordizian 9 la-
gun, Zaldibian 12, Beasainen 4, Laz-
kaon 6, Ataunen 4, Legorretan 6 eta
Itsasondon 2.

MUTILOKO KONTXI

ALDASOROK artzai batek jaso de-
zakeen saririk hoberena jaso berri du.
Bere gazta erdi preziatuagatik Super
Amara etxeak 450.000 pezeta or-
daindu zituela esan behar, honez gero
norbaitek ez baleki ere. Gaztañadi-Errota baserriko etxe-
koandrea lehen aldiz aurkeztu zen
Ordiziako Gazta Latxaren txapelke-
tara. Egun batzuk lehenago Legazpi-

koan irabazi bazuen
ere, zaila ikusten zuen
"jende asko eta ona
etortzen delako".
Txikitan bere amonak
erakutsi zion gazta
egiten eta oraindik ere
bere gaztak era zaha-
rrean egiten ditu. 140
ardi latxa ditu eta es-
nearen kalitate eta
garbitasunari ematen
dio lehentasuna muti-

loarrak. "Nere gaztak keatuak dira,
betikoak horrelakoak izan ohi dira
eta", aitortu zuen, nahiz eta bestela-
koak dauden modan.



ORDIZIAKO APARTE-

KO AZOKAN eguraldi ona eta
50.000 lagun inguru bertako kaleak
betez. Bikainkiro joan zela esan
behar bertan izaterik ez zutenei. Au-

rreko alean jasotzerik izan ez guk,
eta, gazta lehiaketan 2. eta 3. sariak
Unanuako Martin Baldak eta Idiaza-
balgo Jesus Mari Intxaustik jaso zi-
tuzten. Abere txapelketan, Idiaza-
balgo Pedro Katarain izan zen Piri-
niotako arrazako behien 3 ataletan
irabazi zuena. Beste zenbait sari ere
beregianatu zituzten Olaberriako Al-
berto Irastorza eta Lazkao Iztueta
Elkarteak. Bukatzeko, esan AEK-ren
bertako produktuen zozketako zen-
baki saritua 925a izan zela.

RUFINO IRAOLA IRA-

BAZLE Lazkao Txiki bertso-paper
sariketan. Hilak 11an banatu ziren
Ordiziako Barrenan 3. Lazkao Txiki
bertso-paper lehiaketako sariak. Hel-
duen sailean, Rufino Iraola zaldibi-
tarra geratu zen irabazle, "Holandan,
ur azpitik" izeneko bertso sailari es-
ker. Ordiziako Alaitz Sarasola "Ene,
arte zahar" lanarekin, Ekaitz Goikoe-
txea eta Aitor Sarriegi beasaindarrak
izan ziren beste saritu batzuk.
GOIERRITARRAren kolaboratzaileak
gehienak ere. Lehiaketaren an-
tolatzailea den Argi Berri elkarte-
koek aurtengo ekitaldiak izandako
arrakasta nabarmendu zuten sariak
banatzeko garaian. Helduetan 18 lan,
gazteetan 8 eta txikietan 120tik gora
jaso dira. Aurkezle lanetan Andoni
Eskisabel aritu zen, laguntzailea den
Udalaren izenean Ramon Amunda-
rain, Argi Berriko ordezkarietan Ma-
nolo Gorospe eta Lazkao Txikiren
ilobek banatu zituzten.

RPS 254/94

EKIN

MASAIA ESKOLA

94-95 ikasturtea (hasiera urrian):

- * Kiromasaia (1 eta 2 mailak)
- * Kirol masaia (1 eta 2 mailak)
- * Esku terapia

ORDIZIA - BERGARA ☎ 88 09 30

MIRENTXU

Liburudenda, Paperdenda, Opari-Gaiak,
Material Didaktikoa

Nafarroa Etorbidean gaude oraingoz

Nafarroa Etorbidea, 7

BEASAIN ☎ 88 14 57

**Carasa, Cilveti,
Lacort y Cia., S.A.**

Aseguruen Korreduria
Martin Alustiza

Ekaitz Bulegoak

☎ 88 69 53

Domingo Unanue, 3 ORDIZIA



CAF-EN BURNIBIDEAK FILIPINETAN

ezartzeko akordioa sinatu dute Beasaingo "Fabrika Haundi"ko eta Filipinetako enpresa bateko ordezkariak. Obra-lana filipinarrek egingo dute, eraikuntza CAFek, bi norabideko burnibide sarea izango da eta aurikusitako kontratuaren aurrekontua 125.000 pezetakoa da.

LAZKAOKO

ETXE ZAHAR BAT, hain zuzen Elozegi Kaleko 26.ean kokatua, ez da bertan behera botako momentuz, bere jabeek nahi zuten bezala. Izan ere, EAEko Epaitegi Gorenaren epai batek etxe hori zaharberritzea behartzen du, ze nahiz hondamen egoeran egon, bere aurrekaldeak balio historiko-artistikoa baitu



Epaitegiaren ustez. Napoleondarren etorreraren aurrekoa da etxea eta ia hutsik dago, "Bereziartu" drogeria bakarrik dago kokaturik bertan.

Bestalde, Inazio Estensoro Lazkaoako Alkateak eta Eusko Jaurlaritzako Jose Antonio Maturanak hitzarmen bat sinatu dute herriko lurretan babes ofizialeko 32 etxebizitza eraiki ahal izateko. Udalak terrenoak eskeini dizkio Gobernuari. Datorren urtean hasiko lirateke lanak.

BEASAINGO GIDA BERRIA kaleratuko du bertako Udalak laister. Orain urte batzuk kaleratutako gidaliburua gaurkotzeko asmoarekin egin da berria, herria eza-gutzera emateko. 50 orri ditu, Dyca enpresak argitaratu du bi hizkuntzetan eta 4.000 ale banatuko dira gutzira. Herriko ondare historiko-artistikoa, zerbitzuak, e.a. agertuko dira.

GAIANTZAN DANTZA TXAPELKETA

ospatuko da gero eta gertuago diren San Mielelako festen egitarauan. Dantza libreko txapelketa urriaren 2an izango da 17,30etan hasita, herriko plazan. Bikoteka parte hartuko da, 15 urtetik gora izatea basta izango da eta zozketa bidez erabakiko da dantzarien ihardun-ordena. Fandangoa eta arin-arina izango dira dantzagai eta usadio zaharrean jantzirik aurkeztuko dira dantzariak. Hil honen 28an itxiko

da izenemateko epea: azkar ibiltzea gomendatzen dute antolatzaileek, 10 bikote baizik ez dira onartuko eta. Interesatuak dei bezate 889564. Sari bikainak izango dira.

IKAN AKADEMIA


94/95 INFORMATIKA IKASTAROA

Nafarroa Etorbidea, 1 (Etxe-Ubi)

BEASAIN



88 97 48



TAPIZ ETA GAINEZTADURA TAILERRA

BIOK, C.B.

Zoruetako moketak, parketak, zintasola, e.a.

Ezkiaga Etorbidea, z/g.
Tfnoak: 88 80 22 - 88 79 17

BEASAIN

Tirabirak Alkartasuna Lizeoan

Beasaingo Alkartasuna Lizeoko ikasleek ez dute oraindik ikasturtea hasterik izan (astelehenean benik), Lizeoak publiko/pribatu izan behar duen arazoa dela eta. **GOIERRITARRA**k bi aldeei aukera eman die beren jarrerak agertzeko.

Euskal Eskola Publikoaren Legearen arabera, sare publikoa edo pribatua aukeratu behar izan zuten ikastetxeek. Alkartasuna Lizeoan maiatzaren 20an egin zen bozketa. Emaita hauxe izan zen: 422 boto publikoaren alde, eta 321 boto pribatuaren alde. Alkartasuna Lizeoa Kooperatiba da eta Kooperatiben Estatutuetan oinarrituz, publikoaren aldekoek kooperatiba hausteko botoen 2/3 lortu ez zuten, pribatuaren aldekoek emaitza inpuignatu egin zuten. Bitartean, Eusko Jaurlaritzak Publikazio Dekretuaren bidez, Alkartasuna Lizeoa sare publikoan onartu zuen, bertako langileak bere kargu hartuz. Pribatuaren aldekoek Dekretua inpuignatu egin zuten. Arazo guzti honetan, auzitegiak bi aldiz emandako epaiek, Lizeoak lehengo egoeran (pribatua) jarraitzeko erabakia eman zuen, kasu honetarako Dekretu hori baliorik gabe utziz. Dena den, Hezkuntza Sailak oraindik ere langileak ez ditu Kooperatibara itzuli.

Alkartasuna Lizeoa ikasturte hasieran zuzendaritzarik gabe zegoenez, Lizeoz kanpoko zuzendari berria aukeratu zen: Pello Urdanpilleta. Publikoaren aldekoek ez dute zuzendaria onartu. Dena den, negoziazio mahaia osatzea onartu dute bi aldeek, Alkartasuna Lizeoari konponbidea bilatu asmoz.

PUBLIFIKAZIOAREN ALDEKO BATZORDEA

G.-Zerk/nork sortu du Ikastolen auzi hau? Zergatik?

E.- Inpuignatzaileek dudarik gabe. Gogoratu publiko/pribatu erabakia hartzeko emandako pausoak. Hemen gertatu dena, barne demokrazia hauste nabarmena izan da. Izan ere, 1993ko maiatzaren 20ko batzar nagusiaren funtzionamendua, kontsulta juridikoak egin ondoren, aho batez onartu zen eta inork ez zuen kontrarik azaldu. Gustoko erabakia ez zutenek, ordea, hautsi zuten oreka demokratiko hori.

G.- Zein da zuen jarrera Alkartasuna Lizeoaren arazo honetan?

E.- Lehen aipatutako erabaki demokratiko eta gardena balia araztea. Hau inpuignazioaren bidez ezinezkoa gertatzen dela badakigu. Hortaz, gure nahia ez izan arren, adostutako banaketa izango da tamalez, irtenbidea, dekretuari jarritako errekurtsioa kentzen ez den bitartean. Hau da, gehiengo egiten duen nahia eta besteena, biak errespetatzea, horretarako, beharko liratekeen pausoak landuz.

G.- Zuek defenditzen duzuen jarreraren arabera, nola geldituko litzateke Alkartasuna Lizeoa?

E.- Euskal administrazioak eskeintzen dituen bitartekoen bidez, bertako guraso, irakasle eta ikasleak osatzen duten eskola kontseilu organoak zuzenduko luke gure Ikastola. Baina arestian aipatu modura, gaurko egoerari, inpuignatzaileak jarrera aldatzen ez duten bitartean, adostasunez landu beharreko irtenbide negoziatu horrek eman beharko lioke erantzuna galdera honi.

G.- Konponbidea zein izan daiteke?

E.- Konponbiderik razionalena eta aberatsena, inpuignatzaileek bere in-

pugnazioa erretiratzetik eta Ikastola projektua definitzetik pasatzen da. Prest geundek, iazko ikasturtean idatziz, haiei helerazi zitzairen beste zenbait puntu negoziatzeko Ikastolaren funtzionamendu hobereena lortzeko. Beti ere titularitate publikoaren rekin, hau baita Ikastolaren etorkizuna bermatzeko bide razionalena. Bestela berriz, inolaz ere, ezin dezaugu onartu gehiengo gutxiengo baten bere nahien eta "pataleta"-ren musikara dantzan jartzea.

G.- Arazo guzti honetan, nor da kaltetuena? Ikasleak? Irakasleak? Gurasoak? Ikastola? Euskal Herria?

E.- Ikasleak? Dudarik gabe. Irakasleak? Zuzen zuzenean. Gurasoak? Baita ere. Ikastola? Euskal Herria? Garbi dagoena da, ez dagoela Ikastolarik, ez Euskal Herririk elkar lan razional, plural eta demokratikorik gabe. Hemen denok elkar ulertzen dugu eta elkar lanez biltzen gara edo bestela ez dago zer eginik.



PRIBATUAREN ALDEKO BATZORDEA

G.- Zerk/nork sortu du ikasten auzi hau? Zergatik?

E.- Ikasten sarea, euskaldunok eta euskaltzaleek Euskal Herriko sei herrialde historikoetan geuretzat sortu, garatu eta hedatutako euskarazko eskola nazionalaren eredu eta ardatza da. Ardatz hori indartsuena den lekua, EAEn, agintaritzaren dutenak, hori sendotzen saiatu ordez, ezabatzen, urtzen eta suntsitzen ahalegindu dira. Horregatik eta Espainiko XIX. mendeko sistema zintzoki jarraituz, *publiko* (administratiorena) eta *pribatu* (administrazioa ez den beste jabe batena) kontzeptuak bakarrik onartzen ditu *Euskal Eskola Publikoaren Lege* deitutak. Hori ez da ahaztu behar.

Gero, bi aukera horien artean derrigorrez bat hautatu beharra ezartzean (aipatu Legearen arabera), demokratikoki onartutako Kooperatibako Estatutuak ez betetzea izan da auzi honen muina. Estatutuek Kooperatiba desagiteko derrigorrez eskatzen zuten 2/3en gehiengoa ez lortuaren, Batzorde Errektoreak itsu-itsu

sare publikoan sartzeari eskatu eta Eusko Jaurlaritzak, ausardia eta lotsagabekeria politikorik handienarekin, ordurarteko epaiei kasurik egin gabe, sare horretan sartzeko Dekretua argitaratu izana izan da auzi honen beste arrazoi bat.

Ondoren, Kooperatibako organoetarako hautatuak izandako batzuek, Kooperatibaren onerako ez baizik eta bere suntsiketarako lan egitea. Irakaslegoaren artean funtzionaritzaren helburu dutenak hori lortzeko oztopo zaien edozer gauza (Ikastola bera kasu) suntsitzeko prest azaldu izana. Tartekatu diren interes politiko, publiko nahiz pribatuak izan dira gatazka honen beste arrazoietakoz. Azkenik, Epaileek emandako epaiak eta ebazpenak lehen unetik ez errespetatzea eta azken muinera iritsi ondoren ezinbestean ere ez onartu nahi izatea, zalaparta bidez baliogabetzen ahaleginduz.

G.- Zein da zuen jarrera Alkartasuna Lizeoaren arazo honetan?

E.- Gure jarrera, Ikastolak zegoen lekuan jarrai dezan ahaleginak egitekoa da, hau da, Ikastolak Ikastola izaten segitzekoa eta gaur eguneko legeriaren arabera, gurasoek eta bazkideek sortu, iraunarazi eta kudeatu duten eskola-eredua, modu berean gestionatzen jarraitzeko modu bakarra sare pribatu edo kontzertatuan geldituz gauza daiteke. Gu lehengoak gara eta ez gara aldatu. Hemen aldaketak beste batzuk egin nahi dizkigute eta ez hoberako, Ikastola egungo sare publikoan urtu eta desagertarazteko baizik. Guk Ikastola guraso eta bazkideen eskuetan nahi dugu aurrera begira lan egin eta ahal den garapenik handien eta onena emateko.

G.- Zuek defendatzen duzuen jarreraren arabera, nola geldituko litzateke Alkartasuna Lizeoa?

E.- Guk defendatzen dugunaren arabera eta Epaileek behin eta berriz epaiaren bidez (Gobernu ahalguztidunaren beraren aurka) adierazi digutenaren arabera, Ikastola hau egungo sare kontzertatua dago, beraz, Goierriko eta Euskal Herriko beste

Ikastolekin batera, Ikastola izaten eta ikastolagintza garatzen jarraitu behar du. Gainera, ekonomikoki ere bideragarria da (batezbesteko 3.000 pta. inguruko kuota hilean eta 10 kuota urtean) eta horrek lehenaz gain indar gehiago ematen digu gauden lekuan jarraitzeko. Hori bai, aurrera begiratu eta ahal den ikastetxerik aurreratuen eta osatuena egiteko noski.

G.- Zein izan daiteke konponbidea?

E.- Lehenik eta behin bozketa erabakitzaileari buruz epaileen ebazpenak eta epaiak onartzea eta errespetatzea. Gobernuarengandik hasi eta azken guraso eta irakaslearenganaino hori ezinbestekoa da. Ondoren, ikastetxe kontzertatua den Ikastola honetan bertako gobernu-organismoek normaltasunez eta Kooperatiba bizi dadin lan egitea, ez suntsitzen saiatzea.

G.- Arazo guzti honetan, nor da kaltetuena? Ikasleak? Irakasleak? Gurasoak? Ikastola? Euskal Herria?

E.- Gatazketan irabazi suntsitzaileek bakarrik irabazi ohi dute beren helburua lortzen dutenean. Gainerakoan, denek galtzen dute zerbait. Kasu honetan, helburu hori ez dute lortu, baina halere kalterik handiena orokorki, Euskal Herriak, Ikastolek eta euskaldungoak jasan dute. Hurbilagora etorrita ordea, Ikastola honek berak osotasunean eta hori esatean ahaztu gabe. Lan asko egiteko balio zezaketen ordu gehiegi galdu ditugu guztiok gatazka antzuetan. Pertsona gehiegi erre da alde guztietan, baina zerbait ikasteko ere balioko duen itxaropena dugu. Agian, proiektu nagusia den Ikastolaren filosofia eta izantza sendotu eta berreskuratzeko ikasbidea jasoko dugu eta hori ez litzateke gutxi. Dena dela, gu prest gaude hemendik aurrera, gatazka-orduak ahaztu eta orduak lanean sartzen hasteko. Asmo hori burutzeko lagun gaitzakeen oro izango dugu bidelagun. Beraz, aurrera Ikastolarekin!


 Loinaz Agirre




Paper eta beira-bilketa bereiztua Goierrin

Paper bilketa mekanizatu martxan jarri denez hona, *berreskuratutako paper kopuruak gorakada izugarria izan du*. Esaterako, joandako uztai-lean berreskuratutako paper kopurua 93ko denboraldi berean erreperatutakoaren bikoitza izan da. Abuztua beira ere, mogimendu apaleko hilabetea izan ohi den arren, 93ko hilabeterik onenean baino paper gehiago bildu da.

Ekitaldi honetako lehen 8 hilabeteetan 694.474 kg. paper bildu dira guztira. 93 ekitaldian 697.040 kg. bildu ziren. "Beraz, 2.566 kg. baino ez zaizkigu falta iazko zifra berdintzeko eta, beti ere, ahaztu gabe oraindik 4 hilabete falta direla urtea bukatzeko", dio Sasieta Mankomunitateko zerbitzuburua den Iñaki Erauskinen. Herriarren gaur egungo erantzun mailarekin jarraitzen bada, datozen ekitaldietan urteko 1.380 tona paper inguru berreskura ditzakete. Zifra horren arabera herritar bakoitzak urte betean 20,5 kg. paper berreskuratuko lituzteke. Indize hau ez da makala, ez.



Edukinontzi-banaketa ekainean amaitu zen



Beira atzerago ez

Bestalde, azken hiru urteotan jarri diren beira- edukinontziek eta amaitu berriak diren kontzientziazio kanpai-

nek beira erreperazio tasaren igoera nabarmena ekarri dute. Sasieta, Euskal Komunitate Autonomoko beira berreskurapen indize-rik altuenetakoa duen Mankomunitatea da. *Gaur egun eskualdeko biztanle bakoitzak urteko 12,4 beira botatzen du* hain ezagunak zaizkigun "igloo" izeneko beira-edukinontzietan, hau da, sortzen duenaren ia erdia. Beraz, badirudi beirak ez duela paper, ontzi, pila eta antzeko materialean atzean gelditu nahi, berziklaketari dago-kionean.

"Datu guzti hauek, berri-ze, Goierriko herritarren kontzientziazio eta lankidetz-za maila altua berrestea baino ez dute egiten eta hasi-tako bidea jarraitzeko eta egungo zerbitzua ahal den neurrian hobetzeko indar berria eman digute", azaldu du Iñaki Erauskinen.

M. Aramendi

Gero dator eta atsegina

BASAKANA

ITURRIOZ 11
BEASAIN

Ana Belén

ILEAPAINDEGIA

Gurutze, 2
88 26 31

LAZKAO

**EUSKARAZ
BIZI
EUSKARA
BIZIAN**

BARRENA EUSKALTEGIA

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE IKASTAROAK

MATRIKULA: irailaren 5etik 30era
BULEGO ORDUAK: 10:00 - 12:00
18:00 - 20:00
ARGIBIDE GEHIAGO: 88 12 80 tfnoan.

Ordiziako Udala

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24
Tfnr: 88 95 83

20210 LAZKAO
(Gipuzkoa)

Herriko bi ikazkinek langintza zaharra bizi-berritu dute

Irailaren zortzian eman zioten sua herriko kaxkoan aurrez altxatu zuten txondorrari Juan Apaolaza eta Julian Muñoak eta sutan egon da gaur arte. Aste honetako 3-4 bat gau beharko izan dira ikatza ateratzeko (ikatza sutan ateratzen da; hobeto kontrolatzeko egiten da gauez).

Gaur egungo jendearen gehiengoak ez du inoiz ikusi aurrez aurre txondorrik, baina Zerainen behintzat, errittoa bete da. 30en bat urte txondar handirik egin gabe zeuden bi zeraindar hauek. 16 bat tona pago egur (enbor handi xamarak) karreatu, metatu txukun asko eta herritar zenbaiten laguntzarekin txikitu eta prestatu zituzten. Geroztik hor aritu dira gau eta egun hori zaintzen, piztuta mantendu zedin.

Kultura bizirik

Honoko txondarraren gertakizuna, Zeraingo Udalak aspalditxotik bere herria promozionatzeko politikaren (herria ezagutarazi, kultura eta turismoa bultzatu, e.a.) kapitulu berri bat baino ez da. Hor txertatu beharko litzateke, Mari



Oso teknika zehatza du ikazkintzak, esperientzia behar da.

Flor Mendizabal kultur batzordeburraren esanetan: *"Herriko patrimonioa zaindu eta berreskuratu, ohitura zaharrak ere bai. Kultur asteetan zerbait berezia egiteko ohitura daukagu beti. Aurten horixe okurritu zen eta beraiek nola prest zeuden, geroz eta ikazkin gu-*


txiako dagoela eta seguraski herriz egiteko aukera izango ez denez, bada aurrera eraman zen idea". Gainera bentaja handia da halako bi herritar ikazkin lanerako prest edukitzea.

Gainerakoan, 5. Kultur astea ospatu dute Zerainen. Aurtengoan, ikazkintzaren prozesuaren gaineko argazki erakusketa bat, lau hitzaldi, diapositiba emanaldia, herriko taldearen txotxongilo emanaldia, bertso saioak e.a. izan dira. Hitzaldietan sarrera ona izaten da normalean (50 lagun inguru), inguruko herrietako jendea ere hurbiltzen da. Kultur Etxeko juntan udaletxe, elkar-teak, eliza, gazte eta guraso, denetatik egoten da. Herri guztia, esan liteke.

Zerain herrian edozein "kolore"ren gainetik egiten ari direna txalogarria da. Museoa, ibilbide turistikoak, loragintza, zerrategia... Balorazioen ordua da: *"Momentuz bide onetik dihoala ikusten da. Herriko jendea ere gustora dago eta hori da inportanteena".* Horrek bere kostuak ditu eta, irabazi handirik sortzen ez badu ere, merezi du. *"Hasierak dira eta aurrera begira egiten dira eta aurrera jarraitzeko asmoekin gaude".*

Jon Arano

TXONDORRAREN EGITURA



Txondorraren lanak

Txondorra egiterakoan, beharrezkoena ikazkinak horretan ibilitakoak izatea da, neurria hartu diezaioten. Esperientzia. Beraiek badakite noiz behar duen egur gehiago, noiz ez... Oso teknika zehatza du ikazkintzak, egun batetik bestera ikasi ezin daitekeena.

Txondorraren oinarria izango den sare moduko egitura osatu, zutoina kokatu erdian gida moduan, eta inguruan neurri bereko egur puskak, kebidea osatuko dutenak. Haren bueltan hasten dira jartzen egurrak iladaka eta behetik goraka. Honokoa 3 pusketan egin dago, tarteak orbel edo belarrez bete, lurrez estali dena eta goitik ematen zaio sua. Suak poliki-poliki ura xurgatzen dio egurrari eta ikatz bihurtzen da. Egurra ez da erretzen beraz, pixkana-pixkanaka egosi baizik. Kearen kolorea iluntzen denean jakiten da egur-ikatza eginda ote dagoen. Baina arreta handiz jokatu behar da, galdu ere, galdu bai daiteke. *"Ondo kasu egin behar zaio txondorrari. Bestela, kanpoan zuloa egiten bazaio, akabo gure lana"*, esan zuten bi ikazkinek.

EUSKAL JAIEN

OIHARTZUNA bizirik dago oraindik, festak itzali baziren ere. Oianguko erromeriak eman zion amaiera Euskal Asteari, baina bien bitartean zenbait gertakizun ere izan ziren.

● **ELKARTEARTEKO IV SUKALDARITZA TXAPELKETA:**

Beasaingo Murumendi Elkartea izan genuen garaile, 2. plater onena Ordiziako Larrun Arrik prestatu zuen eta atzetik Itxaropena geratu zen. Murumendiko Martin Urkiola eta Bixente Iraolak ontzat ematen dute lehiaketa honen helburua, hain zuzen, Idiazabalgo gazta eta Eusko oiloa bultzatzea.

● **ORDIZIAKO IDIAZABALGAZTAREN KOFRADIA**ren 5 bilerak ere egin zen. Barrenan, Kofradiaren egoitzan, kofrade berrien (Jose Ramon Lasa, Mikel Ceberio, Juanjo Lapitza, Rafael Garcia Santos, Manuela Garmendia eta Luis Mokoroa) izendatzea burutu zen. Manuela Garmendia ordiziarrek 95 urte ditu eta 11 urte zituenetik, 70 eta gehiago urte bete arte gazta saltzaile izan zen. Kofradi honek 52 kide ditu dagoeneko.



● **HERRI KIROLETAN**, Zegama, Segura, Olaberria, Beasain eta Zerain lehiatu ziren elkarren artean. Hasieran Beasain kanporatu zuten. Bigarren saio batean Segura eta Olaberria. Zerain izan zen garaile azkenean eta Zegama bigarren.

● **TOMAS LACALLE PALA-JOKALARIAK**, Donibane-Lohitzuneko Pilota Mundialetan egon

behar du honezgero eta, "DV"ko Rafa Arizmendiri aitortu berri dionez, txapela lortzeko ametsari ez dio muzin egiten. 23 urteko gazte baina aldi berean beterano hau Cubakoan ere izan zen. Sasoi onean dago eta emaitza onak lortuz gero, profesionala izan daitekeela uste du.

Aitor Calvillo

GAINTZA**San Miel Jaien egitaraua****Irailak 25, igandea**

7,30etan: Gaintza-San Miel (Aralar) irteera egun pasa. Herriko Plazan, mendigoizaleentzat. (11,30etan autobus irtengo da "alperrentzat").

Irailak 28, asteazkena

Ilunabarrean festa hasera suziriekin. 20,00etan, Mondeju Lehiaketa gaintzar eta zaldibitarrentzat. Baldintzak: gehienez ere lehenengo 15 partaide onartuko dira. Bakoitzak 5na mondeju aurkeztu beharko ditu. Sariak: 1.a: trofeo eta 2 lagunentzako afaria; 2.a: 2 lagunentzako afaria; 3.a: 2 lagunentzako afaria. Plazan mondejuak probatzeko eta ardoa edateko aukera paregabea. Ordu berean, "Gipuzkoa" izeneko dia-

positiba emanaldia.

Irailak 29, osteguna (San Miel Eguna)

11etan Meza Nagusia; ondoren, jubilatuentzat hamaiketakoa. 17,00etan toka txapelketa. 21,00etan Herri Afaria bertsolariekin; ondoren Andoni eta Ramon trikitilariak. Amaitzeko baratzuri zopa "zapo" eta guzti.

Irailak 30 (San Miel Bigarrena)

18,00etan haur jolasak. 22,30etan bertso saio berezia: Egaña, Peñagarikano, Lujanbio, Murua, S. Lizaso, J. Sarasua eta Sorozabal. Ondoren, Koldo eta Arantxa Iparragirre eta

Jose Anjel goizalderarte. Amaitzeko, batzuri zopa.

Urriak 1, larunbata

11etan Futbol Partidua herritarren artean. Arratsaldeko 4etan, VI. Plater Hausketa herritarrentzat. Ondoren dantza saioa eta ardo nahiz txistorra dastaketa. Gauean Zabale Anaiak. Goizeko 3ak aldera, irrintzi lehiaketa eta ondoren txokolatea txurroekin.

Urriak 2, igandea

11etan Meza Nagusia. 12etan XI. Gaintzako Txirindulari igoera. 5.30etan dantza txapelketa eta iluntzean, jaiei amaiera emateko, dantzaldia Zabaleta eta Imanol trikitilariekin.

Lanean hasi orduko, festa usaia!

Irailean Samiel eta Samieletan festa. Kulturaldiari 23an, ostirala, emango zaio hasiera OHoko 4. mailako umeentzat irakurketarako animazioko saio batekin: Oihulari Klowen Antzerki Taldeak 'Alfonbra magikoa' aurkeztuko du Udaletxeko Areto Nagusian. Egun berean, San Migel Parrokian eta arratseko 7.30etan Lazkaoko abesbatzaren emanaldia izango da.



Urtero bezala, Samiel aurretik Esparruko festa ospatu zen.

Larunbatean, hilak 24, eguerdiko 12etan I. Automobilismo Proba ikusi ahal izango dugu plazan, Saltsa Kultur Elkartek antolatuta. Ordubatean pilota partiduak frontoian. Arratsalde, berriz, 6etan Tolosako Udaberri dantza-taldeak emanaldia eskainiko du plazan eta 7etan buruhandiak eta Antzar Gazteak txistulariak herrian zehar.

27an, asteartea, arratsaldeko 7etan 'Gipuzkoa 1915-1940' ikus-entzutekoa emango du Kepa Gonzalezek Udaletxeko Areto Nagusian. Asteazkenean, hilak 28, arratsaldeko 4etan Street Basket Txapelketa jokatu, gozatu eta ikusi ahal izango da plazan. Bi maila berezi dira, 15 urtez behekoentzat eta 15 urtez gorakoentzat, eta parte

hartu nahi duena Kiroldegira joan da-dila. 7etan buruhandiek eta Antzar Gazteek salto, dantza eta korri egiteko aukera eskainiko digute.

Eta 29an, osteguna eta Samiel egunean eguerdiko 12etan Meza izango da Parrokian, Lazkaoko Abesbatza bertan izango delarik. 12.30etan alde batetik pilota txapelketako txapeldunak nortzu izango diren erabakitzeko azken partiduak jokatuko dira eta bestetik Sara Irastortza eta Gorka Munduatek trikiti doinuz plaza eta inguruak alaituko dizkigute. Jubilatuek Ataungo Bittor Jattetxean bazkaria izango dute. Arratsalde, 6etan, Oin Arin dantza taldearen saioa plazan. 7etan buruhandiak txarangaz lagundurik eta 7.30etatik 9etara

Drindots taldearen lehen saioa plazan dantzan gorputza mugitu nahi duen guztiarentzat. 9etan Kontxupen herri afaria, norberak edo talde bakoitzak bere afaria eramanez, eta 11etatik aurrera Drindotsen bigarren saioan afarian gehiegi jandakoek gorputzari egurra emateko aukera izango dute.

Hilaren 30ean, ostirala, iluntzeko 10.30etan Maskarada Taldeak 'Mostruo

sakratua' lana antzestuko du Aleria zinemaren. Eta Kulturaldiari amaiera emateko urriaren lehen, larunbata, 12.30etan pilota partiduak izango ditugu. Arratsalde, berriz, 5.30etan, Sagardo dastaketa plazan. 16 sagardogilek ekarritako sagardoz gain herriko talogileek taloak banatuko dituzte eta Gorka eta Sararen trikiti doinuak giro-tuko du festa.

Esan, Kulturaldian zehar Agustin Vaqueroren pintura erakusketa egongo dela ikusgai Udaletxeko Areto Nagusian, astegunetan arratsaldeko 7etatik 9etara eta larunbatean eguerdiko 12.30etatik ordubietara. Ondo pasa!

 Mari Joxe Madariaga



ARAKAMA HARATEGIA

San Prudentzio - Tel.883352

Elosegi - Tel.880720

Uhaitz - Tel.889314

LAZKAO

ESTANKO TABERNA

Odolkietan berezitasuna

Elosegi, 17

LAZKAO

ZELATA taberna

Uhaitz, 1
LAZKAO

☎ 88 62 18

MANUEL-ENEA TABERNA

Festa onak pasa!

Elosegi, 5

☎ 882029

LAZKAO

Etxebizitzak eraikitzeko konpromezua sinatu da

San Martingo futbol zelaian, babes ofizialeko 40 etxebizitza eraiki behar dira. Eusko Jaurlaritzako Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurugiro sailburua den Jose Antonio Maturana eta Sagra-rio Eskisabel Ataungo alkatesak, aikatutako etxebizitza hoiek egiteko Lan-kidetza-Hitzarmena sinatu dute. Hilabete honen 8an udaletxean egindako ekitaldi publiko labur batez, obrak datorren urte barruan hasiko direla agindu zuen Maturana sailburuak.

Babes ofizialeko 40 etxebizitza hauekin batera, hirigintza lan berean jasotzen diren kultur ekipamenduak (zinema), mediku kontsultegia eta kanpokaldeko egitura eta itxierak egiteko betebeharrak bere gain hartuko du, Jaurlaritzak deitutako lehiaketaren adjudikatariak, hauek Ataungo Udalari utziko zaizkiolarik.

Gogoan izan, duela lau hilabete GOIERRITARRAN bertan azaldu genuenez, zinema aretoa egiteko 10.000.000 pezetako laguntza onartu duela Diputazioak, bere kultur ekipamendu aurrekontuan. Laguntza hori, orain egitea onartutako etxe hauek noiz eraikiko zirenaren zai baldintzatua ze-



Sagrario Eskisabel eta Jose Antonio Maturana. Arg.: J.B.

goen, datozen lau urtetarako aurrekontuari zegokion eta. Berri onak beraz. Lehenbailehen gauzatuta ikusteko moduan izan gaitezela.

Arrisku bizioan

Joan berria zaigun abuztuan, egun gutxitako tartean eta metro batzutako urruneran, bi istripu larri izan ditugu errepidean. Larriak, "ezer" gertatu ez bazen ere, bietan ondorio latzak izan zitezkeelako. Lehenengoan, kamioi batek Artzubiko teilatua jo, eta honen zati bat lurrera erori zen espaloi gainera; bigarrengoan, furgoneta batek Tabla etxe bakoia eraman zuen aurretik, auskalo zenbagarren aldiz, burnizko barandila eta gainontzekoak espaloira botaz.



Hori nahikoa ez balitz ordea, barandila hori hor dago harrezkero beste espaloi bat trabatuz, eta Artzubi aurreko espaloia berriz, arrisku seinalez "babestua" oraindik ere. Errepideak ordea, lehenean segitzen du, herriko bihurtuerik txarrenetakoa den horretan.

Joxe Begiristain

ZALDIBIA

Lorezaintza-ikastaroa

Kulturako udal batzordeak lorezaintzarako ikastaroa antolatu du; irailaren 19tik urriaren 3ra arteko astelehen, asteazken eta ostiraletan eman go da, arratsaldeko 3etatik 4etara; 7 orduko iraupena izango du. Kanpoko nahiz barruko loreak ezagutu eta zaintzen ikastea izango du helburu ikastaro honek. Prtaideek hala nahi izanez gero, beste gai batzuk ere ikutu daitezke; era berean, ordutegia ere molda daiteke krutislisten beharren arabera. Berri gehiago jakin nahi dezanak dei beza 16 03 38 telefonora.

Presoen aldeko gose greba

Amnistiarean aldeko Zaldibiko komiteak dei eginik, Euskal preso politkoen aldeko elkartasuna adieraziz, he-

rriko talde bat gose greban dago joan den igandez geroztik, Itoitz etxean, beste hainbat herritan bezalaxe. Gose greba honek astebeteko iraupena izango du, larunbat eguerdian amaituko delarik. Amnistiaren aldeko komitekoek, bestalde, gose greban daudenean sortu ditzaketen iniziatiben aurrean adi egoteko esan dute, hauek ere beste inoren berotasuna senti dezaten.

Setien gotzaia Zaldibian

Don José María Setién, Donostiako gotzaiak Zaldibiko parrokia bisitatu zuen joan den larunbatean. Era horretan itxi zuen, "Parroki astea" lemapean, aste osoan zehar izan diren bilera eta hitzaldi zikloa. Hitzaldi zikloak hiru ekitaldi nagusi izan ditu: irailaren 12an, "Gure parrokia ezagutu eta eginez"

izenburupean Emeterio Sorazuk eman zuen hitzaldia; hilaren 13an, "Kristaion fede-nortasuna eta testigantza hemen" lemapean, Jose Antonio Pagolak eman zuena; eta irailaren 16an, "Vivir el compromiso cristiano" titulupean, Arturo Garziak jorratu zuen gaia.

Hitzaldietan jende ikaragarri izan ez baldin bada ere, ez dela burla egitekoa izan adierazi zigun Don Emeterio Sorazuk, herriko erretoreak, batz beste hitzaldiko hirurogei bat pertsonak hartu duela parte zehatzuz. Elizkizun eder eta parrokiako kantaldi ederreago batekin amaitu zen dena. Gotzaiak esan zuenez, "garai zail hauetan inoiz baino premiazkoagoa da Ebanjelioko hitza, Jesusen mezua".

Rufino Iraola Garmendia

Gazte Asanbladak urte bat bete du

Beasaingo Gazte Asanbladak bere lehen urtemuga betetzen duela eta, talde honetako kideek festa bat ospatu zuten irailaren 17an. Beraien asmoa Beasaingo gazte guztiak plaza azpian egin zen bazkari batean biltzea zen. Bazkari haren inguruan beste zenbait ekintza ere antolatu zituzten. Eguerdiko hamabietan udaletxeko pareta eskalatu zuten, ondoren trikitiaz lagunduriko poteo bat izan zelarik bazkaltera joan aurretik; bapo bazkaldu ondoren bertso saio bat entzuteko aukera izan zuten eta ondoren Rafa magoaren magia liluratu ahal ziren. Bosteterdiak aldera grafitiak egin ahal izan zituzten eta intsumiso batzuek hitzaldi bat eskeini zuten; gaueko bederatzietan hasitako kontzertuak amaiera eman zion egunari.

Lehen urtea bete berri duen asanblada hau bere helburuak lortzen ari dela dirudi, baina horrek ere ematen du nahiko lan. Lan horri buruz, BGAKo kidea den Borja Kondek hitzegingo digu.

G- 1. urte honetan zeintzu izan dira zuen betekizunak?

E- Ekintza asko antolatu ditugu, mendia garbitzera joan, zuhaitzak landatzera, elkar hobeto ezagutzeko akanpada bat antolatu, nikiak pintatu, trikitixa jaialdi bat ere antolatu genuen plaza azpian eta beste gauza askoren artean festetan txozna bat jarri genuen.



Borja Konde Gazte Asanbladako kidea.

G- Zein laguntza jaso dituzue ekintza horietarako?

E- Udaletxeari dagokionez, aurrekontua aurkeztu dugu eta dirua jasotzeko zai gaude; orain arte, gure dirua eta txoznaren bidez lortutakoa erabili dugu. Lokalari dagokionez, lokal propioz ez daukagunez, "Kimuak"ekoek beraiena erabiltzen uzten digute.

G- Zer diozu gazteen parte hartzeaz?

E- Hasieran bastante jende apuntatu zen, 70en bat lagun edo; gero jendearen parte hartzea baremo bat izan zen, gora eta behera ibili da jende kopurua. Orain

bileretan 45 lagun inguru elkartzen gara.

G- Ze asmo dituzue 2. urte honetarako?

E- Helburu garrantzitsuenak lokal bat lortzea da. Hori edukiz gero tailerrak, kursiloak e.a. antolatu bait daitezke. Orain arte egin dugunarekin jarraituko dugu, eta gainera astebururo zerbait antolatzeko asmoa dugu. Hemendik, gazte beasaindar guztiei dei egiten diet gure ekintzetan parte har dezaten, ateak denentzat irekiak bait daude.

Izaskun Salazar



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20

Tfona: 88 87 02

BEASAIN

LOINATZ
Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak



Nagusia, 27 ☎ 88 20 07 BEASAIN



RENAULT

AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 882442-888901
Faxa: 888901
LAZKAO

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfona: 880243 - 880133
BEASAIN

GOIERRITARRA

3.700 ale
12.000 irakurle

Futboleak bazkide bila

Segura Kirol Elkartekoa den futboleko saila bazkideak eskuratzeko kanpainan ari da denboraldi berri honen hasieran. Helburua, urteroko sozioak berri eta berri gehiago egitea da. 16 urterarteak ez dute ordainduko, 16tik 18ra bitartekoak 1.500 pezeta besterik ez, eta 18tik gorakoak 3.000, familiarrak (andra-gizonak) 5.000 eta jubilatuek dohain. Kirol arduradunek herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte, bazkide txartela eginez futbolaren eta herriaren alde porta dezaten. Bestalde, 2. errejonaleko taldeak entzaintzaile berria izango du aurtengo denboraldirako. Juan Carlos García, "Pintín" ordiziarra da eta futbolaren munduan, gaztetxoan mailatan batez ere, asko aritua.

Ehiz postuak


Urtero bezala, Seguran izan zen Partzoneriko ehiz postuen enkantea. Irailaren 11n herriko Udaletxean diru gehiena lortu zuten postuak hauetxek izan ziren: Apotako 10ek 728.000 pzta.

Haginarango 0k 571.000 pzta. Apoteko 12k 513.000 pzta. Hagiñarango 4k eta Larrebilgo 19k 488.000 pzta. Larrebilgo 17k 486.000 pzta. Iturgaingo 5ak 428.000 pzta. Haratzeko 7ak 425.000 pzta.

Xabier Imaz Munduko Pelota Txapelketan

Pelotako mundialetan parte hartzen duen 5. herritarra da Xabier Imaz gaztea. Iparraldean ospatzen ari den XII. munduko pelota txapelketan, eskuz binakako modalitatean ari da Segurako atzelaria. Mundialetan izan diren gainerakoak hauetxek:

- 1952an Donostian izan zen mundialean, Xeberiano Etxeberriak parte hartu zuen eskuz binakakoan. Arbizu III.a lagun zuela txapeldunorde geratu zen.
- 1955ean Uruguayko mundialean, Ximon Garaialde izan zen. Eskuz binakakoan aritu zen eta txapeldunorde gelditu Atanillo aurrelari zuela.



- 1958an Miarritzen, Gotzon Etxeberriak ere parte hartu zuen.
- 1993an Buenos Airesen eta 21 urtez azpiko gazteen munduko pelota txapelketan Iñaki Artola izan genuen. Trinkete modalitatean aritu zen, eta Urretabizkaiarekin pareja eginez txapeldunorde izan zen.

Joseba Telleria

IDIAZABAL

Helduentzako eskola

Iaz 9 pertsona heldu hasi ziren Idiazabalen bertan, Eskola Graduatua edota kultura orokorra zabaltzeko ikasketak burutzen. Aurten ere bada aukerarik: Irakurtzen eta idazten ikasi; kultura orokorra zabaltzeko eta Eskola Graduatua lortu.

Nahi baduzu, Udaletxean eman ezazu zure izena irailaren 23a baino lehen.

Joxe Elortzari lagunduz

Uda honen hasieran Joxe Elortzarantzako dirulaguntza eskatu genizuen eta idatzi honen bidez, orain artean izandako emaitzen berri eman nahi dizuegu.

Orain arte 335 pertsona edo familieren erantzuna jaso da, urtean 4.588.201 pezeta bildu ahal izango delarik (gogoratu aurrekontua 8.000.000 pezetakoa dela).

Mila esker guztioi eta norbait oraindik ere laguntza emateko asmoz balego, hauek dira kontu korronteak:

GIPUZKOA DONOSTIA KUTXA: 00.1036425.5

LANKIDE AURREZKI KUTXA: 199.0.00321.6

1994ko Gripearen aurkako txertoa

Txertaketa honako lagun hauei gomendatzen zaie, arriskurik handiena hauetxek baitute: 65 urtetik gorakoei; 65 urte izan gabe edozein gaixotasun kroniko jasaten dutenei, hala nola: bronkitis kronikoa, diabetesa, bihotzekoa, giltzurrunetako gaixotasun kronikoa, gibelakoa eta abar; eta UCI, Onkologian, Neumologian, edo Zaharren Egoitzetan lan egiten dutenei.

Txertaketak urriaren 30era bitartean, astelehenetik ostiralera, goizeko 10.30etatik 13.00etara egingo dira eri-

zainaren kontsultan.

Herriko ehiztariei deia

Idiazabali Partzonerian tokatu zaizkion postuetan ehizean egiteko izen ematea, irailaren 23an 8.30etatik 10.30etara Otsoa Elkartean izango da. Izenak bikoteka eman beharko dira eta ehizeko lizentzia eta armen baimena aurkeztu beharko dira. Zozketa irailaren 30ean izango da gaueko 8.00etan hasita.

Zirika irratia berriro lanean

Zirika irratia ere, urtero bezala hasiera doa bere larunbateroko saioak eskaintzen. Urrian emango dio hasiera eta larunbatero 13.00etatik 15.30ak alderarte zuekin izango da. Zu ere entzule izango zaitugulakoan, ordurarte.

Aloña Galarraga

Korala sortu nahi da

Datorkigun ikasturterako, Herriko Musika Eskolak badakar berrikuntzarik. Bere ohizko musika klaseez aparte koral herrikoi bat eratu nahi da. Garai bateko San Andres Abesbatzaren urratsak jarraitu nahi dira. Urte askotako hutsune horrek eman du zer esana herriarren artean, baina badirudi oraingo honetan izango dugula arlo honetako musikaz gozatzeko aukerarik.

Hilabete honen bukaera aldera, jendea topatzeari eta biltzeari ekingo zaio. Ez da inongo adin mugarik, ez eta solfeoa menperatu beharrik, behar den bakarra, abesteko borondatea da. Hori bai, garai batean, Ormaiztegiko koralen parte hartu zutenen laguntza ezinbestekoa izango da, hasierako oztipoak errazago gainditzeko.

Irtenbidea Gaztetxeari

Aurreko ostegunean bilera berezi bat ospatu zen Kultur Etxean. Gaztetxeak sortutako gorabehereri irtenbidea emateko bildu ziren, gazte, guraso eta udaletxeko ordezkari batzuek. Garai batean egindako hitzarmena ez betetzea leporatu zion Udalak gazteriari, horrek ekarri



eman dute izena parte hartzeko inten-

zuen ateak istea. Baina, berriro ere irekitzeko asmo bizia azaldu dute herriko zenbait gazteek. Horrek nolabaiteko soluzioa behar duela eta erabaki garrantzitsu batzutura ailegatu ziren.

Jakinik 18 urtez beherako inork ezin duela bertara sartu, gaztetxe honek nolabaiteko salbuespen arraro bat egiten du. Honenbestez,

gurasoen inplikazioa handitzea erabaki da. Gaztetxe berriaren etorkizuna, 6 gazte, 4 guraso eta udaletxeko 2 ordezkari osatutako juntak antolatuko du. Gaztetxeak badu aurreakordiorik, beraz. Gai honek sortu dituen tirabirak izango du irtenbide hoberik.

San Migel Eguna

Irailaren azken asteburuan ospatuko da urtero bezala San Migel eguna. Egun horretako egitaraua guztiz eratua dago: eguerdian toka txapelketa eta zuri-bolaren jaurtitzeta izango da. 16,00etatik hasita, mus txapelketa, umeentzako jokuak eta txokolatada gazteenentzat. 18,00ak alderako poteo herrikoia dago aurrikusita, antolatzaileen iritzitan dotore jantzita joatea komeni da. Eta nola ez, ilunabar aldera ohizko zahagi- ardoa herriko plazan. Ondoren kuadrilen arteko sokatira txapelketa.

Pala Txapelketa

1. San Andres pala txapelketak izan zuen arrakasta ikusi ondoren, 2.a eratzeko asmo sendoa agertu zuten antolatzaileek. Iadanik hainbat taldeek

Udal liburutegia herritarren zerbitzura

Udako oporretan, ohizkoa den bezala, udal liburutegia itxita izan badugu ere, badira aste batzuk ireki zela eta aurrerantzean larunbatero irekita egongo da 14.30etatik 16.30etara. Bertako arduraduna, aurreko urteetan bezala, Bakarne Peñagarikano da eta 3.500 liburu inguru daude liburutegian zeinek irakurriko zain. Orain arte batez ere eskolaumeak izan dira bertara jo dutenak, baina interesgarria izango litzateke jende helduagoak ere joera hau hartzea. Hauxe da Bakarneren nahia eta ondorioz dei berezia egin nahi die herritar guztiei zerbitzu honetaz baliatu daitezen.

Liburu gehienak atera daitezke lasai asko etxera eramanez eta irakurtzeko eta 15 eguneko epea dago berriro itzultze-



Nekane Peñagarikano, Liburutegiko arduraduna

ko. Honela bada, udazken eta negu parteko eguraldi kaxkar horiek laster hurbilduko zaizkigu eta aukera paregabea dugu liburu eder bat irakurritz gozatzeko.

Gripearen aurkako txertoa

Lurdes Arriaga sendagileak herritar guztiei eta, batez ere, 65 urtetik gorakoei jakinarazi nahi die gripearen aurkako txertoa hartzeko egunak urriaren 12ra arte izango direla. Txerto hau hartzea komenigarria da 65etik gorakoentzat, eta gaixotasunen bat dutenek txertoa hartu aurretik sendagilearen kontsultara jo behar dute; gaixotasunik ez dutenak zuzenean joango dira erizain edo enfermerarengana. Txertoa hartzeko egunak eta orduak: Ezkion, astelehen eta asteazkenetan eguerdikotatik 12.30ak arte; Gabirian, ostegunetan eguerdikotatik 11.30etatik 12ak arte.

 Gabino Murua

Josune Bereziartu Espainiako eskalada txapeldun

Irailaren 11n, Espainiako kirol eskalada txapelketa irabazi zuen Josune Bereziartu beasaindarrak. Hori lortzeko hiru probatan parte hartu beharra izan zuen: lehenengoa Gasteizen, bigarrena A Coruñan eta hirugarrena Madrilén. Lehenengo biak berak irabazi zituen Esther Bullidoren aurretik, "bi hauetan formaz oso ondo nongoen, baina Madrilera formaz pasata iritsi nintzen, abenduan Munduko Kopara ondo iristea interesatzen bait zait. Probako finalera sartu nintzen eta Estherrek lortu ez zuenez, irabazita nuela jakiteak erlajatu egin ninduen", azaldu digu Josunek. Erlajazio hau dela eta bigarren postuan gelditu zen azken proban. Txapel hau lortu aurretik Euskadikoa bereganatu du eta iaz ere bi txapelak lortu zituen beasaindarrak.

Aurtengo bere helburua Munduko Kopa da eta aurreko probak ere garrantzitsuak diren arren prestakuntza modura hartu ditu. Iaz Munduko Koparen azken proban parte hartu zuen, esperientzia piskabat hartzeko edo. "Hura beste mundu bat da, dio Josunek, joaten diren gehienak profesionalak dira, aurrekontu handiagoak, organizazio hobea, esperientzia gehiago... Beste mentalitate batekin joaten zara, «zer egin behar dut nik hemen», pentsatuz. Baina bukatzean esaten duzu: «ez da hainbeste, hor ibili ninteko», puntan ez baina nahiko aurrean bai, esperientzia hartzeko".

Entrenamendua beharrezko

Orain dela 4 urte t'erdia hasi zen Josune eskalatzen eta duela 2 t'erdia bereziki horretarako entrenatzen. Negu partean indarra eta fondoa hartzeko pesak eta korrika egiten du, baina hala ere beti joaten da eskalatzera ohitura ez galtzea-



arren eta dibertitzearren. Konpetizio garaian Ordizian bertan entrenatzen dute, "Rikardo Otegi ordiziarrek pisu bat libre zeukan eta entrenatzeko tabloi bat jarri genuen, Patxi Arozena eta David Carretero donostiarrak ere gurekin aritzen dira. Konpetizioa horma artifizialean egiten denez, oso garrantzitsua da rokodromo eta tabloietan entrena-

tzea. Adibidez, Munduko Kopan puntan dabiltzanak ia ez dute harkaitzean eskalatzen eta bi eskalada motak piskanka banatzen ari dira". Harkaitzean eta artifizialean eskalatzearen ezberdintasunak argitzeko eskatu diogu Josuneri: "Oso ezberdinak dira, artifizialean heldulekuak garbi ikusten dira eta badakizu nora joan, harkaitzean ez da hain garbi ikusten, zuretzat balio duen koskatxo batek beste batentzat ez du balio, paso bera modu ezberdinean egiteko posibilitatea ematen dizu".

Josunek, Espainiako txapeldun izan arren, ez dauka inolako sponsorrik, ez diru eta ez materiale aldetik. Konpetizioetarako bidaia Gipuzkoako Federazioak ahal duen eran ordaintzen dizkio, hortik aurrerakoa poltsikotik jarri beharrean aurkitzen da. "Bila saiatu, saiatzen naiz, baina izen bat izan behar duzu, aldizkarietan azaldu behar zara, berdin da zer egin edo zer esaten duzun, baina azaldu. Baina entrenatu lan egin eta dena batera egitea oso zaila da".

Mikel Albisu

Kuadro teknikoa

Adina: 22 **Altuera:** 1,74 **Pisua:** 56 k
Eginiko gradu altuena: Landuta 8a
Bistaz 7b+7c

Gradua lantzea edo bistaz egitea:
Bideak ensaiatzea asko gustatzen zait, baina, bistaz egitea oso garrantzitsua da, maila hor demostratzen delako.

Bideak, indarrezkoak edo teknikoak: Indarrezkoak noski, desplomea eta helduleku onak.

Tailaketak bai ala ez: Lehen sika ez zegoenez tailatu egiten zen. Baina orain ez da pikatu behar, zenbat eta natura-

lagoa izan bidea askoz hobe. Nibelik ez duzulako ezin duzu mugimendu bat aldatu.

Horma handiak egiten dituzu? Riglos asko gustatzen zait.

Eskalatze leku gustokoenak: Zazpiturrieta (Amezketan) nere leku kuttuna da. Euskal Herri mailan Oñati eta Espainia mailan Escalate (Huesca).

Mendian ibiltzen zara? Deskantsu garaian mendian paseatzea, naturaz disfrutatzea asko gustatzen zait.

Dietarik? Edozein kirolarik egiten duena, eskalatzaile bejetarianoaren topikoa topiko hutsean geratu da.



JATETXEA
Juan Rubio

- Menuak "Self-service" an:825 pzta.
- Enpresentzako menu bereziak:1875 pzta.
- Asteburuetako menuak (enkarguz):2500 pzta.
- Bankete, ezkontza, jaunartze, despedida eta ospakizunetarako eskatu aurrekontuak.

Zenbait larunbatetan afari musikalak talde batek alaituta.

Merkatal Zentrua

☎ 16 02 15

OLABERRIA



Hirigoien, 12
LAZKAO

☎ 16 10 16

Agautz magaleko trikiti doinuak

Gaur egungo gazteok ojaleta soina eta txapa hotsa besterik ez dugula entzuten esaten badigute ere, Ataungo Agautz trikitilari taldea, gazteok era askotako musika gustoko dugula erakustera datoz. San Gregorio eta Aia auzoko boskotearekin izan gara, taldea zertxobait gehiago ezagutzeko asmotan.

Agautz trikitilari taldea duela 3 urte sortu zen, sortzaileak urte bete lehenago jotzen hasi baziren ere. 5 lagunek osatzen dute taldea: 3 soinu jole eta 2 panderojole. Taldearen izena Ataungo mendi batetik datorkie.

Martin trikiti irakasle famatua dute maisu eta oraindik oporretan badaude ere, berehala urteroko martxan haste-koak dira jo eta ke. Astean behin elkartzen dira bostak, trikitia jo eta kantatuak entseiatzeko.

Uda eta negu izaten dute lana, hala ere gehixeago egingo luketela adierazi digute. Neguan sagardotegietan, Nafarroa Oinezen, Kilometroaken, Herri Urratsen, herritako festetan, edozein tokitarako todo-terrenoak ditugu hauek. Uda aldera gehiago jotzen dute, txapelketak ere orduan hasten baitira.

Kantuen letrarik gehienak bertsolariek egiten dizkiete, batez ere ataundarra den Begiristain artzain eta mutil zaharrak. Oso bertso politak egiten omen ditu eta hara non abestu ziguten bat adibide moduan.

Badegu inguruan mutil zahar ugari (ber) nahizta bixita egin

San Antoniori zaila da ezkontzea dagoen pilà hori.

Ostirala ezkerotabernai begira (ber) eta neguan berriz sagardotegira txurrutarekin ondo konpondutzen dira.

Dantzan ez dute inoiz hankarikan urra (ber) neskatzai ikutzeko daukaten beldurra hoiek ondo berotzen ez dago xamurra.

Bakardadea onadanikan ez uste (ber) ilobatxoak ondo zaindu itzazute zahartzaroan bakarrik nahi ez badezute.

Hauek ez dira hain erraz atzeratzen diren horietakoak, eta mutil eta neskato koskorak zirenetik makina bat toki berri ezagutzeko aukera izan dute, guzti horrek dakartzan gastuak ahaztu gabe. Musu truk jo beharra suertatuta ere aurrera egiten dute. Margari amaren hitzetan, "kuestioa ez da dirua bakarrik, jendeak ezagutzea baizik. Hala ere, egia da zerbait ateraz gero, umeentzat pozgarri izaten dela".

Bitxikeri moduan guztiak oroitzen dira Bergaran izan zen Kilometroako egun hartaz. Hura izan zen beraientzat lehen ateraldia eta ongi asko gogo-



Zutik: Aintzane, Aritz eta Eneko, San Gregoriokoak. Makurtuta: Aiora eta Gorane, Aiakoak.

ratzen dute euritan, inguruan ziren mendi tontorrek pasatuz zirukuitoari buelta guztia eman ziotela. Egun guztian zehar isildu gabe aritu omen ziren. Orduan konturatu omen ziren Ataungo Aian bakarrik ez daudela aldapak! Belauetaraino lokazturik ere ibiliak direla gogoratzen dute.

Kontuak-kontu etorkizun oparoa dute 5 ataunder hauek, hortan dudarik ez. Guk gure partetik horrelaxe jarrai dezaten opa diegu eta ea laster zuen maketaren bat erosteko aukera izaten dugun. Animo!

 Argider Mujika

AGAUTZ trikitilariak

Bai jaunartze, sagardotegi edo edozein ospakizunetarako zuen zerbitzura.

Dei ezazu: ☎ 18 02 75
ATAUN 18 04 08

SUTEGI taberna

San Gregorio
ATAUN ☎ 18 03 54

GOIERRITARRA



88 96 12

ZAILDU EZAIGUZU



**"DISEINU ESKLUSIBO ETA
KALITATE BIKAINETZKO
BETAURREKOEN BILA NABIL"**

MULTIOPTICASen Sara eta Berto
eustura eskusiboak



**"GARANTIA OSOA
ESKATZEN DUT"**

MULTIOPTICASen garantia
txartelak EUROPAko
3000 optiketan balio ditu.

**"ETA PREZIO ONA,
JAKINA"**

2.850 pta. bakarrik.

J. LARRAÑAGA OPTIKAN ERRAZTUKO DIZUGU

2.850 pta.



Ibargaray, 16 - BERGARA
J. Carlos Guerra, 1 - ARRASATE
J. M. Baradiaran Enparantza, s/n - ORDIZIA




-Agroturismo etxea: bi logela bikoitz bai-
nuarekin.

-Etxeko sukaldaritza: babarrunak, baserri-
ko oilaskoa, arkumea...

-Eguneroko menua 800 pzta. Karta 2.000
pzta batz best.

MANDUBIKO BENTA Jatetxea

Mandubiko gainean, Urolatik
Goierrirako bidean
Tfona: 88 26 73



Argitarapen honen edizioko laguntzailer:

kutxa fundazioa

fundación kutxa